

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

DONEMILIAGAKO UDALA

Behin betiko onespena ematea OPko 306 mendian (“apota eta ubarrundia”) fruitu, perretxiko, landare eta loreen aprobetxamendua arautzen duen zerga ordenantzaren aldaketari

Jendaurrean jartzeko arauzko epean erreklamaziorik aurkeztu ez denez, iragarkia 2020ko maiatzaren 4ko ALHAOn (49. zk.) argitaratu zenetik, behin betiko onetsi da “Apota-Ubarrundia” onura publikoko 306 mendian fruitu, perretxiko, landare eta loreen aprobetxamendua arautzen duen ordenantzaren 8. artikulua aldatzeko espedientea. Hau da, hitzez hitz, onetsitako aldaketaren edukia:

OPko 306 mendian, “Apota-Ubarrundia” izenekoan, fruitu, perretxiko, landare eta loreen aprobetxamendua arautzen duen ordenantza.

Zerga kuota

8. artikulua. Kuotak

1. Ondoko kuota hauek ezartzen dira OPko 306 mendian fruitu, perretxiko, landare eta loreen aprobetxamendua egiteko, ordenantza honetan xedatutakoaren arabera. Aprobetxamendutzat zera hartzen da: perretxikoak, fruituak, landareak eta loreak biltzea, kontsumitzeko edo komertzializatzeko.

a)- Zazpigarren artikuluko 1.1 puntuan aipatutako pertsonak denboraldiko baimena eskuratu beharko dute. Asparreneko eta Donemiliagako udalek emango diete baimen hori, udal bulegoetan edo horretarako izendatzen diren erakunde laguntzaileetan. Denboraldi bakoitzeko 6,00 euro ordaindu beharko dute.

Denboraldiko baimen hori baliouduna izango da OPko 306 mendirako eta, hala dagokienean, hitzarmen eta ordenantza egokien arabera sor daitekeen esparru bakarraren barruan sartutako mendi guztietarako.

b)- 1.2 puntuan adierazitako pertsonak baimen berezia eskuratu beharko dute, alkateek edo haiek eskuordetzen duten zinegotziak berrikusia.

c)- Zazpigarren artikuluko 2. puntuan sartutako pertsonak Asparreneko eta Donemiliagako udalek emandako eguneko baimen bat eskuratu behar dute, udal bulegoetan edo horretarako izendatzen diren erakunde laguntzaileetan, eta pertsonako eta eguneko 5,00 euro ordaindu beharko dituzte. Era berean, asteko abonuen gisako baimenak emango dira, pertsona bakoitzeko 22,00 euroko prezioa izango dutenak, eta denboraldi guztirako abonuenak ere, pertsona bakoitzeko 52,00 euroko prezioa izango dutenak.

2. Aprobetxamendu kuota, dagozkion baimenak eskatzen eta eskuratzen direnean sortuko da.

3. Aprobetxamendu kuota ordaindu beharra duten subjektu pasiboak perretxikoen, fruituen, landareen eta loreen aprobetxamendurako baimenak ematen zaizkien pertsonak izango dira, edo, baimen egokirik gabe arituz gero, aprobetxamendutik onura hartzen dutenak.

Tarifak:

A) Asparreneko eta Donemiliagako udalerrietako auzotarrak, udal-eroldan inskribatuta daudenak (aprobetxamendua arautzen duen ordenantzaren zazpigarren artikuluko 1.1 puntua):

– Denboraldiko baimena: 6,00 euro.

b) Asparreneko eta Donemiliagako udalerrietako auzotar ez direnak (aprobetxamendua arautzen duen ordenantzaren zazpigarren artikuluko 2 puntua):

– Eguneko baimena: 5,00 euro

– Astebeteko baimena: 22,00 euro

– Denboraldiko baimena: 52,00 euro

Administrazio bidean behin betiko den erabaki honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkez daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzien salan, iragarki hau argitaratu eta hurrengo egunetik bi hilabete pasatu baino lehen, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioaren uztailaren 13ko 29/1998 Legeak 10. eta 46. artikuluan xedatzen duenarekin bat etorritik.

Horrek guztiak ez du eragotziko egoki jotzen den beste edozein errekurtsu aurkeztea.

Erdoña, 2020ko uztailaren 13a

Alkatea

ERIKA LETAMENDI HURTADO